

ETXEBIZITZA ETA EKIPAMENTU BEHARRAREN AZTERKETA BURUTZEKO MOZIOA.

2005eko martxoan, Lasarte-Oriak Udalerriaren egungo Plangitza Orokorraren testu moldatua onartu zuen. Arau subsidiario haietan, herriko lur-eremu handi bat urbanizagarri sailkatu zen, eta, bertan, 2152 etxebizitza berri eraikitzea planifikatu zen, 4000 biztanle baino gehiagoko herria izatera iristea zelarik helburua.

14 urteren ondoren, biztanleria kopuruaren igoera 500 bat lagunekoa izan da soilik, eta, gainera, planifikatutakoaren zati handi bat oraindik ere ezin izan da garatu. 800 bat etxebizitza eraiki dira soilik, aurreikustakoren %40a. Halaber, aurrikuspen faltak eta indarrean zegoen planean programatutako jarduketek, birklasifikatutako landa-eremu ia guztien okupazioa eragin du; herrian zeuden hiri-garapenerako arazoei irtenbidea eman aurretik (Kotxerasko hirigunea, esaterako).

Horrek guztiak adierazten digu 8 urtetarako egin zen planifikazioa ez zela zuzena izan eta bere momentuan garatu zen etxebizitza beharra errealitatetik urrun zegoela.

Gauza bera gertatzen zaigu ekipamentuekin ere; hots, Urbarteko zelaia, kiroldegiaren anpliazioa... proiektu horiek ez ziren aurreikusi eta ,orain, abian jarri dira. Zentzu horretan, egun, Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren (H.A.P.O.) egikaritze prozesu honetan, burutu den diganostikoak ditugun ekipamenduak nahikoak direla adierazten du, baina ez du inolako txosten teknikorik aurkezten ez eta baloraziorik egiten ere. Lasarte-Oriako ekipamenduek herritarren beharrei erantzuten dien jakiteko ala ez azterketa sakonago bat egin behar delakoan gaude.

Beraz, hurrengo urteetan udalerriaren norabidea erabakiko duen dokumentu garrantzitsu baten idazketaren aurrean gauden honetan, garrantzitsua iruditzen zaigu behar adina azterketa egitea eta horiei erantzun eta horien arabera udal estrategiak sortzea:

1. Etxebizitzaren egoera eta beharraren inguruko azterketa

Etxebizitza hazkundeak herritarren beharrei, udalerriaren behar endogenoei erantzuten dien jakiteko, eta, noski, herrian zer-nolako eragina izan duen eta izango duen baloratzeko etxebizitza beharraren azterketa burutzea ezinbestekoa delakoan gaude. Hori guztia kontuan hartuta, eta Hiri Antolamendurako Plan Orokorra etxebizitza beharri aurre egiteko tresna denez, azterketa horretan oinarrituriko aurretiazko estrategia behar bezala definitzea beharrezko iruditzen zaigu.

2. Ekipamenduen inguruko azterketa

Diogun etxebizitza hazkundeak biztanleriaren gorakada dakar, eta hori horrela izanik, Lasarte-Oriak dituen ekipamenduak nahikoak al dira? Kultur Etxean nahikoa espazio al dago? Liburutegiak erabiltzaileen nahiak eta beharrak asetzen ditu? Musika eskolan zein eskaintza daukagu? Eta eskaintzak eskariari erantzuten al dio? Kiroldegiko ekipamendua nahiko al da herriko jarduera fisikoari erantzuteko? Laburbilduz, herrian ditugun ekipamenduek herriko aktibitateari behar bezala erantzuten die?

Galdera horiei guztiei erantzuteko, uste dugu egungo udal zerbitzuek beraien iritzia eman beharko luketela eta, behar bezalako azterketa baten bidez, egoera hori jaso eta erabiltzaileen gorakadari erantzuteko etorkizuneko estrategiak garatu behar ditugula.

Aipatutako horren guztiaren aurrean, Lasarte-Oria EH Bilduk honako eskaera egiten dio Udal Batzari:

- Lasarte-Oriako etxebizitza beharraren errealitatea ezagutzeko azterketa bat burutzea eta horretarako beharrezkoak diren baliabide ekonomiko eta teknikoak ezartzea.
- Egungo ekipamenduen nahikotasuna eta etorkizunean, biztanleria hazkundearean aurrean, Lasarte-Orian ditugun eta aurreikusten diren ekipamenduek herritarren beharrei erantzuten dien eta etorkizunean erantzuteko nahikoak izango diren ezagutzeko azterketa burutzea eta horretarako beharrezkoak diren baliabide tekniko eta ekonomikoak jartzea.

Lasarte-Orian, 2019ko abenduan.